

## DESKONTU ETA MURRIZKETAK GIPUZKOAKO AP-1 ETA AP-8an.

### ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

- Pertsona fisikoa izatea.
- Ibilgailu arinean bidaiatzea.
- Kontu korrante bat edukitzea momentuz BIDEGI, SArekin elkarlanean ari diren finantza-erakunde laguntzaile hauetako batean: Kutxa, Caja Laboral, La Caixa, Banco Guipuzcoano, Bankoa, Caja Rural de Navarra eta Iparkutxa.
- Plan honetan sartzeko VíaT teleordainketa sistema erabiltzea beharrezkoa izango da aurretik aipatutako kontu korrante horri atxikituko baitzaio. Ordainketa sistema hau, teleordainketa edo TAG VíaT sistema da. Ordainketa sistema hau azaldutako edozein finantza-erakunde laguntzailean eskura daiteke prezio murriztuan (alokairu moduan) **AP-1/AP-8 autobideetarako Deskontu Plana eskatuz**.
- Gipuzkoako Udallerri batean erroldatuta egotea, horretarako, bertako Udalak emandako erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunarekiko zergen ordainketan egunean egotearen ziurtagiria; hurbileneko Ogasun-Ordezkaritzan eska daitekeen ziurtagiria aurkeztuz frogatu beharrezkoa.

2010eko uztailaren 1etik aurrera AP-1/AP-8 autobidean burutzen diren zenbait joan-etorrien gainean **Murrizketa Programa** bat ezarri da martxan. Programa berri hau, soilik, Deskontu Planaren barruan dauden erabiltzaileei zuzenduta dago.

### MURRIZKETA PROGRAMA APLIKATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Deskontu Planari atxikitutako VíaT ordainbidea izan eta ibilgailu arinean egiten duten joan-etorriei zuzendutakoa.
- Murrizketa 24 orduko tartean eta ordainleku beretik jarraian egindako joan-etorriko bidaia bakoitzari **0,37 €** (BEZ barne) aplikatzean datza, ez bada joan-etorriak burutzen tartekako beste ordainlekutik. Programa honen barruan dauden ordainlekuak ondorengoak dira: **Irun M/O, Irungo ordainleku nagusia, Oiartzun, Orío, Zarautz Ekialde eta Zarauzko ordainleku nagusia**.
- Azkeneko ordainleku honetatik sistema itxira burututako joan-etorriek tratamendu berezia izango dute, sistema itxian sartu, tartekako joan-etorriak burutu eta 24 orduko epean Zarauzko ordainleku nagusitik atera egiten bada.
- Deskontu-kalkulua egin baino lehen aplikatuko da eta murrizketen bueltatzea **hilean** jasoko da.

### DESKONTU PLANA APLIKATZEKO BALDINTZAK

- Hilabete zehatz batean deskontuak aplikatzeko, **gutxienez, hilabete horretan 6 bidaia** egitea nahitaezko baldintza izango da ondoren azaltzen diren ezaugarriak kontuan hartuta:
  - Kobratzeak bidai bakoitzaren bukaera adieraziko du.
  - Joan-etorriaren sarrera eta irteera lurralde desberdinetan emanez gero, deskontua Gipuzkoako bidez-tziaren gainean aplikatuko da.
- **%25eko deskontua**, hileroko lehen eta zortzigarren bidaia arteko zenbateko bakoitzari aplikatzekoa (biak barne).
- **%55eko deskontua**, hileroko bederatzigarren eta hogeigarren bidaia arteko zenbateko bakoitzari aplikatzekoa (biak barne).
- **%75eko deskontua**, hileko hogeita batgarren bidaiatik aurrera zenbateko bakoitzari aplikatzekoa.
- Joan-etorri bakoitzari murrizketa badagokio, deskontu-kalkulua egin baino lehen aplikatuko da eta murrizketen bueltatzea **hilean** jasoko da.

- OSO GARRANTZITSUA:**
1. Deskontuak hilabetea amaitutakoan eta **pertsona bakoitzeko TAG batean** aplikatuko dira.
  2. **Lapurketa, galera edo hondaketatik finantza-erakunde berean tag gailu aldaketa** balego, sistemak, hilabete berean **bi tag gailuekin** egindako **joan-etorrien batuketa** burutuko du baldin eta **bankuak aurreko TAG gailuaren baja ematen badu** eta **TAG** honekin joan-etorri gehiago **burutzen ez badira**. Aurrekoa betetzen ez bada edota **Banku-erakundez aldatu** nahi izanez gero, sistemak, **deskontu** planean **alta** eman den **azkeneko TAG** gailuarekin egindako **joan-etorrien gain** egingo du deskontua.